

**ANKULEGI XXII. ANTROPOLOGIA JARDUNALDIA**  
**Ankulegi Antropologia Elkarteak eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia**  
**Sailak antolatua**

**ANTROPOLOGIA HERIOTZAREN AURREAN**  
**(Donostian, 2019ko APIRILAREN 12an)**

Heriotza garai eta gizarte guztietan presente dago. Hala ere, biologikoa eta soziala den edozein prozesuren antzera, testuinguru kultural eta historikoaren arabera agerpen ugari ditu. Ankulegi Elkartearen XXII. Antropologia Jardunaldiak heriotza eta hari lotutako forma, irudikapen eta esanahiak izango ditu aztergai, eta San Telmo Museoak antolatuko duen “Heriotza aurrean” erakusketari lotuta egongo da. Nola egiten diogu aurre heriotzari? Nola agertzen zaigu eta nola ematen dugu horren berri? Zer forma hartzen dute hileta errituak eta zeremoniak? Nolakoak dira egungo doluak eta osatze prozesuak? Zer harreman eraikitzen dira bizidun eta hildakoen artean? Nola agurtzen eta nola gogoratzen ditugu hildakoak? Zein da haien gizarte presentzia (sinbolikoa, jaien bidezkoa, espirituala...)? Zer espazio eta arkitektura motak eraiki eta erabiltzen ditugu oroitzapen eta gurtzarako?

Bestalde, askotarikoak dira hiltzeko prozesuak eta, eurekin batera, prozesu horietan zehar burutzen ditugun ekintzak eta hartzen ditugun erabakiak. Gaixotasun edo istripu heriotzez gain, suizidioek, eragindako heriotzek, eutanasiak eta gaixotasun terminalen tratamenduek hausnarketa antropologikoa eta etikorako esparru zabal bat ireki eta osatzen dute, hainbat arloen arteko elkarrizketa ezinbesteko bihurtuz: legea, erlijioa, medikuntza, bioetika, zuzenbidea...

Halaber, ikuspegi biopolitikoak eta indarkeriaren, gerraren eta genozidioen ikerketek, nekrotanato-politikoak bihurtu zaigun egungo errealitateari buruzko hainbat hausnarketa etikopolitiko eta epistemikoak eskaintzen dizkigute. Mundu osoan zehar dauden hobi komunek, itsasoan itotako milaka pertsonen heriotza ukatuek, gerra edo feminizidioak hildako guztiek, heriotzaren inguruko bestelako prozesu, bizipen eta ekintzak eragin dituzte. Testuinguru ezberdinetan eragindako bortxa heriotzek eta desagerpenek erritu propioak sorrarazi dituzte, eta justizia, aitortza eta erreparaziorako hainbat borrokari bidea ireki diete.

Gai horien inguruan hausnartzeko asmoz, Ankulegitik dei egiten dugu jardunaldi honetan heriotza eta haren agerpen soziala lantzen duten komunikazioak aurkeztera, izan aipatu ikuspegietatik zein posible diren beste hainbatetik, ikerketa eremu honetako egite etnografiko eta hausnarketa metodologikoak lantzen dituztenak barne.

Proposamenak euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez bidali behar dira, [urtarrilaren 22a baino lehen](mailto:ankulegi2019@gmail.com), ondorengo helbide elektroniko honetara: [ankulegi2019@gmail.com](mailto:ankulegi2019@gmail.com). Proposamenek honako atalak izan behar dituzte:

- **Proposamen-mota:** komunikazioa, posterra, tailerra, ikus-entzunezkoa edo beste formaturen bat.
- **Izenburua:** izenburu nagusia eta azpititulua, hala badagokio.
- **Egilea:** izen-abizenak, helbide elektronikoa, diziplina eta jatorri instituzionala.
- **Deskribapen laburra:** proposamenaren ideia nagusiari buruzko sinopsia. Komunikabideetan Jardunaldia zabaltzeko erabiliko da. Gehienez, 30 hitz.
- **Deskribapen luzea:** proposamenaren helburu, metodo eta inplikazioen deskribapen zehatza. Proposamena ebaluatzeko balio izango du eta, horrela badagokio, Jardunaldiaren web-gunean zabalduko da, egitarauarekin batera. Gomendatutako luzera 150-200 hitzekoa da.
- **Hitz gakoak:** 2-3 hitz bakarrik.

Jardunaldia San Telmo Museoan (Donostia) izango da, apirilaren 12an. Otsailaren hasieran, proposamenen egileekin harremanetan jarriko gara, onartuak edo baztertuak izan diren jakinarazteko.

Aurreko urteetan bezala, 2019an Ankulegi Elkartearen aldizkariak zenbaki monografiko bat argitaratuko du, jardunaldian landutako gai berberaren inguruan. Jardunaldian komunikazioak aurkeztuko dituzten egileak artikuluak bidaltzera animatzen ditugu, argitaratuko baitira baldin eta kontseilu zientifikoaren betebeharrak formalak eta kalitatezkoak betetzen badituzte, *peer review* prozesua pasa ondoren.